

# EGIAZKO ESKUALDUNAK

## LEHEN ZATHIA

### I

**MAIDER:** Helas. Hor zituzta, Maria? non zira? Ai ei ai, espalakoin hok.

**MARIA:** Urkitzu, Maider eskalapon hoik soinean, ez dita gure etxean bazterrak ziratuak...  
Zato aintzina... hola hola.

**MAIDER:** Ari zinen?

**MARIA:** Ba, ba, hemen ari niz ene aphairuaren moldatzen. Bethi haste da jatekoarekin.

**MAIDER:** Ba, segur, hala da.

**MARIA:** Ixtantean goseak sartuko zaizkit, ba haurrak eta gizonak, eta zerbait behar da heien hazteko... Bainan, errana den bezala, talo jan eta talo lan da ardura.

**MAIDER:** Alo, Maria, ez zaitela sobera arregura, etxe ona da, etxe ona, Mendigaratea; ez da ez lanik gabe egina holako etxaldea... Ongi jan eta ongi lan da hemen... Zer diozu?

**MARIA:** Ba, lehen, ba, Maider. Bainan, orai denborak itzulikatuak dira gogorki. Etxeko eta kanpoko manerak ez dira aparantzirik ere berdinak.

**MAIDER:** (*Orheari lotzea delarik*) Ez, ez...

**MARIA:** (*Sua daantalaz haizatzen du, taloak itzultzen, bethi erasian*) Aditu duzuia orai zer dioten kazeta horiek?

**MAIDER:** Ba, izigarri da pasatzen den, Frantzia behere hoitan... Zer itzulipurdiak bazter guzietan. Egia erran, denak azpikotz goiti emanak dire gure gazte denboratik hunat... Sasoinak ere ez dira berdin. Orena ere iguzkia bairo fiteago doha. Manera txarrak, manera txarrak, Maria.

**MARIA:** Ba eta heldu denborak ez dira hobeak iduri. Ala oraiko jendea badu espantun denak fiteago eta denak errekiago egiten dituzte bere ustez. Bizkitartean deus ez doha hobeki.

**MAIDER:** Errazu berriz, Maria? Soizu beztitzeko manera bera ez den bada irringarri. Soinekoak batean labur belhaunetan gora..., bertzean luze herrestan... ez dakite nola apha in bere buruak gehiago.

**MARIA:** (*Irrino batekin*) Eta halere ezkontzak sekula baino nekheago egiten... Mutxurdinak tole, tole... eta khexu, khexu...

**MAIDER:** Ba arrazoinekin, Maria? Eta... ez dira ez gero, oraiko muthiko gazteak mintz erretxak. Jaunxkoak dire, jainxkoak.

**MARIA:** Egia diozu, Maider? Dena pretentziona, gehienak. Lan gutixko eta josteta hainitz... Harat hunat frango... oto eta abion; futbol eta nik dakita zer... Nehon ez lauzke.

**MAIDER:** Ba eta aitaren aintzurra eta tresna zaharrak, han zokhoan herdoilduak...

### II

*Kattalin sartzen da pegarra buruan*

**KATTALIN:** To, Maider.

**MAIDER:** Huna non den Kattalin. Indarretan da hau. Airoski ekhartzen duzu ferrak ta zuk maitea?...

**KATTALIN:** Ba, ez da pisua segurki. Loria da hunekin ithurrirat juaitea. Nun zabilta, Maider??

**MAIDER:** Ori, denbora eder hunekin behar nintuela oihalak phentzean hedatu... Zer berri da haurra ithurrian?

**KATTALIN:** Ba berria frango, eta ez nola nahikoak.

**MAIDER:** Errazu, fite, Kattalin. Zernahi jakiten da errekan.

**KATTALIN:** (*Holako harridura batekin*) Xabaldinek khondatzen zuen, Bordarian zer gerthatzen dakoten. Ikharatzekoa ere bada segur.

**MAIDER:** Ai, ei, haurra, zer da ba?

**KATTALIN:** Arian herratua ba omen dabilta gau guzietz tenore beretan eta erraiten omen diote Pettani bortz mila libera ezar ditzala leihoan, heien zorren pagatzeko.

**MAIDER:** Jesus, Jesus, eta orduan?

**KATTALIN:** Eta orduan, Pettanek izitua erratan dio: «Ona balin bahiz, mintza hadi. Eta debruaren blin bahiz, aparta hadi». (*Emaztekiak izitzen dira*)

**MARIA:** Gero haurra? Hauxe da ixtorio, ikharragarria.

**KATTALIN:** Sekulan baino gehiago arrabots, aditzen zuen aratsean, eta zer egin du Pettanek? Ezarri du, entsegu bat bezela argi bat piztua leihoan.

**MAIDER:** Arima herratuak hil di bederen?

**KATTALIN:** Hil.

**MAIDER:** Ah, badakit ba, zer diren. Ezagutzen ditut segurki.

**KATTALIN:** Biharamunean, bola bat kafesne ezarri du eta laminak dena hurrupa edan dio...

**MARIA:** Zaude ixilik haurra, arimak ez du hurruputzen.

**KATTALIN:** Ba, ama, ba... Aditu dute hurrupa...

**MAIDER:** Ai, ei, Kattalin??? Jesus, Maria... Zaude Maria bada bertzerik oraino.

**KATTALIN:** Hirugarren aratsean, Pettan gaizoak herri guzian bildurik bere zorrien pagatzeko sosa, ezarri ditu leihoan, bortz mila libera galdeginak.

**MAIDER:** Eta?

**KATTALIN:** Denak joan dazko suzko usain bat uzten zuela. Iduri omen zuen ximixta.

**MAIDER:** Jainko zeruko eta Andredena Maria. Ifernukoa zen. (*Zeinatzen da*)

**KATTALIN:** Ba ba, Maider. Jandarnek han dabilta geroztik eta ixtorio horrek ba omen du bertze segidarik... Bankako alde hortarat behar omen laike joan, jakiteko zer pasatzen den.

**MAIDER:** Ba, Baigorriko alde horietan gerthatzen omen dira holako ixtorio horiek.

**MAIDER:** Guardi, emazu, haurra, eta ez sobera urrun hor gaindi egun hautan. Hor duzua bederen medailla benedikatua?

**KATTALIN:** Ba, ama... Nahi nuke joan nik ere aratsean Gaxuxarekin? Arrabots horiek nahi ditut nik ere aditu.

**MAIDER:** Ez, Kattalin, ez joan, zer gertha ere... Izaitekotz ere joanen gira denak elgarrekin (*xutitzen dai*) arats batez... Bainan hemen nago kalakan, eta ene linja hedatzekoa...

**KATTALIN:** Bego ene gain, Maider. Hedatuko dautzut nihaurek, behar ditut gure mihiseak itzuli. Emazu saskia... Sarri arte... (*Atheratzen da*)

### III

**MAIDER:** Milesker, Katlalin, ah, zer perla zitudan zu. (*Mariaren gana itzultzen da*) Zer nexkato gisakoa. Merezi luke bai hunek ere hobeki ezagutua izaitea.

**MARIA:** Ba, arrazoin duzu, Maider. Erraiteko baizik ez dan bainan nekhez harrapa lezake Laphurdi eta Baxenabarren Kattalinekin bezalako kozin on eta garbirik egin lezakenik.

**MAIDER:** Sinhesten dut. Axita da segurki, eta esku lan horietan ere arra abila duzu. (*Hurbilagotik eta aphilago*) Ez duela oraino geroko manerarik?

**MARIA:** Ba, frango gogoetetzen hasia niz eta bera ere iduri zait berantesten hasia daikela... Zer nahuzu, baxhotxak bere bidea segitu behardu. Ezkontzea ere ez da ez josteta. Bainan ez egitea ere ilhun... ilhun.

**MAIDER:** (*mezuka bezala*) Ori badakizuanik nola egin nuen ene aferara... Joanes gaizoaren ezagutza (*begiak goiti*), Jainkoa duela bere loriantan... Lurdeko beila batean elgar errekontratu ginuen... Egia erran, norbaitek hitz bat errana zauntan ba jadanik...

**MARIA:** Ba ba, bixtan da... Pentsatzen dut ba nork... Soizu, soizu, eta zu zoin untsa erori, Maider. Halako gizon maite eta prestua zen Joanes. eta ardura tenpu onekoa.

**MAIDER:** Ba; bazituen ba trenpu guzietarik... Bainan bego hortan. Hementxe xarmanki izanen gira. Sar gaiten, zatozte. Jartzekoak ere baditugu (*Behatzaileri bizkarrez plantaturik irakurtzen du*) «Salle d'attente» ba, hemen egoiten ahal girela erranen nahi du. (*Maidera eta Maria biziki agradatuak dira «Afixa» direlako eta goresten dituzte erranez: «Zer bazter ederrak... Zer othe dira hok?»*)

**MARIA:** Ai,ai, Maider, akhitua naiz... Jar giten ixtan bat. (*Alkhia xukatzen dute mokanesaz ez arropen zikhintzeko*) Hauxe da herrautsa, arropa hoberen hok ez ginintuzke behar zikindu... Ontsa ederra duzu segurki zure soineko hori, Maider. Damu laike funditza.

**MAIDER:** Ba, esposekoa dut ez da hori oraikoa, bainan oihal fina zen. Joanes gaizoarekin erosi nintuen joiak Donaphaleun eta ez nola nahkoak.

**MARIA:** (*Abilki*) Etxeko seme ona senarra naski...

**MAIDER:** (*Arropari musu emanaz*) Ba. (*Izertia xukatzen dute, zintzatzen dira, jartzen ere dira, Kattalin salbu: hau afuxer beha dago*)

**MARIA:** Zer ikhugarriak, paue huntan; balio zuen segurki gelditza.

**MAIDER:** Zer jauregi ederra. Hor sortu erregeak nola zuen bada izena, Kattalin?

**KATTALIN:** Henri IV, Maider.

**MAIDER:** Justu? Henri IV, zaude (*Orhoitzen da*) serorekin ikhasia nuen ba haren ixtorioa (*hasten da letzione bat bezala*) Henri 4, roi de France, fils d'Antoine de Bourboi roi de Navarre et deé Jeanne d'Albret était né a Pau... A Pau;;; horra? Gaineratekoa ahantzia dut... bertze gauza frango bezala. Zer nahuzu... Ari gira gero ahultzen.

**MARIA:** Hauxe da ohako estonagarria zuen haurrak. Apho harmatuaren karkaza da naski...

**KATTALIN:** Ba, ama, aba, «carapace de tortue»

**MAIDER:** Zee, carpace, carcasse, ba, batetarat heldu da guretzat.

**KATTALIN:** Frango hiri pollita eta garbia da Paue, ama... Bainan eskualdun guti hemen: Biarnes horiek beren bonet handiekin ez dira gure aldeko gizonak bezain pullitak eta erneak.

**MAIDER:** (*Mariari ahapetik*) So-izu, so-izu, ohartua zaiku Kattalin ere... Ba, adinean da, egia erran...

**MARIA:** Zonbat denbora othe dugu hemen egoiteko?

**KATTALIN:** (*Orenak emaiten dituzten agerien miazterat doha*)

**MAIDER:** Denetan konpreitua da Kattalin hori; beharrik gurekin dugu... ni chiffre andan hortan nahasten naiz... zu Maria?

**MARIA:** Ba, bixta dut joana, ene miserak gabe ez dut deus ikhusten.

**MAIDER:** Nik ikhustea... egin nezake. Bainan chiffre frantses horietan ez niz trebe... Larri hoietan dut ez pitsik konpreitzen.

**KATTALIN:** (*Hurbiltzen delarik*) Pau, midi 20, départ 553 Trente cinq minutes.

**MARIA:** Trentzen... zonibat da hori?

**MAIDER:** Trentzen minut. Zendako ez ezar klarki «un demi heur»?... Zein bitziak diren. Zernahi gisaz, behar ginuke jan poxibat, hemen berean afaldu... Zer nahi pagatzen da gero hor gaindi. (*Zarea idekitzen du eta zerbitea hedatzen*)

**KATTALIN:** (*Ahalgeturik*) Ba, zarea hoik eta... hemen idekirik... Zer erran behar dute jendek?

**MAIDER:** Zer. Bethi hola zirezte gazte horiek... denetaz ahalge.

**MARIA:** (*Zarea idekitzen duela*) Nik, badut xingar urinekoa hauta, har azu Maider, ogi hunekin.

**MAIDER:** Ba, gogotik. (*Zonbeit ahamen jaten dituzte ixil, ixila*) Eta arno xuri huntarik behar dugu ttinta bat... heia Maria?

**MARIA:** (*Xurga bat botoilatik har eta*) Hauta da.

**MAIDER:** (*Xorta bat lurrerat authikitzen du eta edaten hasten*) Eta zuk, Kattalin, ez duzia nahi zerbait?

**KATTALIN:** Ez, milesker, ez naiz batere gose... Emadazu othoi, etxeko udare on hetarik... egarria naiz.

**MARIA:** Har zazu nahi duzuna haurra. Jan zazu lehenik gasna ustel huntarik puska bat, fruitu horren aintzinean?

**MAIDER:** (*Dena artha*) Ez bazira soberarik untsa, Kattalin, nik badut nihaurrek egin «eau de noix» ene xakhu zolan... Axkar axkarra da, hilak ere phitz litio.

**KATTALIN:** (*Irrino batekin*) Ez Maider, «un digestif» da «eau de noix»

**MAIDER:** Ori, haurra, zerbait da on, dutan hura emaiten dut gogotik... nahi duenari.

**MARIA:** Kafea, han berean hartuko dugu, bero beroa.

#### IV

**MARIA:** Jainko eta Andredena Maria. Bada jende bitzirik bazterretan.

**MAIDER:** Nongo motakoa dugu hau?

**KATTALIN:** Hau, Angles horietarik da ama. Ez zaitela hola beha egon horri...

**MAIDER:** Pipatzen hasten dauku... Alo...

[...]